

Merkantzia ibilgailu arinentzako baimen berriak (MDL)

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Baimen honek ahalbidetzen du besteren kontura, diru-ordain bat jasoz, Estatu barruan ibilgailu arinetan garraiatze-lanak egitea MDL motako baimenekin ibilgailu arinekin baino ezin da garraio egin (2.000 eta 3.500 kilo bitarteko BGM).

Nork tramitatzen du

- MUGIKORTASUNeko ETA LURRALDE ANTOLAKETAKO DPTUA.
- Mugikortasuneko eta Garraio Publikoko Zuzendaritza Nagusia
- Mugikortasun eta Garraio Zerbitzua

Harremana

Helbidea:
Julio Caro Baroja plaza, 20018 Donostia

Posta elektronikoaren helbidea
garraioBaimenak@gipuzkoa.eus
Harremanetarako telefonoa:
943 112991

Nori zuzenduta

Enpresak eta autonomoak.

Baldintzak

- Pertsona fisikoa edo juridikoa izatea.
- Zerga betebeharrak beteta izatea.
- Lanaren eta gizarte-segurantzaren arloko betebeharrak betetzea.
- Baliabide hauek dituela frogatzea: bitarteko informatikoak, posta elektronikoa, eta sinadura elektronikoa, ziurtapen zerbitzuen emaile baimendu batek emana.
- Gutxienez ibilgailu bat izatea jabetzan, finantza errentamenduan edo errentamendu arruntean, trakzio propioa duena eta Espainian matrikulatua dagoena; ibilgailuak 5 hilabete baino gutxiago izan behar ditu, lehen matrikulazioa egin zenetik kontatuta.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko agiriak

- Eskaera behar bezala beteta.
- Aholkularitza edo kudeaketako agentzia baten bitartez jardunez gero: agentziak 001k ordezkarien erroldan alta emanda egon beharko du.
- Tasaren ordainketa. [TASA INPRIMAKIA](#)

PERTSONA FISIKOA IZANEZ GERO, HORIETAZ GAIN HAUEK:

- 1.- Nortasun Agiria.
- 2.- Titularra Gizarte Segurantzako Autonomoen Erregimenean alta emanda egotearen agiria.
- 3.- Ekipamendu informatikoa eta posta elektronikoa izateari buruzko zinpeko aitortpena. [EMAIL ZINPEKO AITORPENA](#)
- 4.- Baimenaren titularraren izenean emandako sinadura elektronikoa kopiatu, eta horren baliozkotasun ziurtagiria.
- 9.- Ibilgailuen JEZeant alta emanda egotearen agiria.
- 5.- Interesdunaren baimena, agiri jakin batzuk egiaztatzeko Administrazioak ofizioz erregistro publiko zehatz batzuetara sartzea ahalbidetzen duena. [ERREGISTRO PUBLIKOAK - BAIMENAK](#)
- 6.- Enpresaren BEZeant alta emanda egotearen agiria (036 dokumentua).
- 7.- Zirkulazio baimenak.
- 8.- Ibilgailuen fitxa teknikoak.
- 9.- Ibilgailuen JEZeant alta emanda egotearen agiria.

PERTSONA JURIDIKOA IZANEZ GERO, HORRETAZ GAIN:

- 1.- IFK.
- 2.- Eraketa-eskriturak, behar bezala erregistratuta; eta, enpresa eratu zenetik hilabete bat baino gehiago igaro bada, dagokion erregistroan eginiko hitzez-hitzezko ziurtagiria.
- 3.- Enpresa Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean alta emanda egotearen agiria; alta autonomoen erregimenean egiten

bada bazkideren baten bidez, enpresako bazkideen liburua, eta dagokion bazkidearen altaren agiria.

4.- Baimenaren titular den enpresaren ahalordedunaren edo gaitasun-agiridunaren izenean eginiko sinadura elektronikoaren kopia eta horren baliozkotasunaren ziurtagiria.

5.- Enpresa 036 BEZaren erroldan alta emanda egotearen agiria.

6.- Aurreko paragrafoko ("PERTSONA FISIKOA IZANEZ GERO, HORIETAZ GAIN HAUEK: ") 3, 5, 6 eta 7 puntuetan agertzen diren agiriak.

Eskaera moduak

» Presentziala

Zuzeneko arretarako bulegoak

Helbidea: Julio Caro Baroja plaza, 20018 Donostia

Arreta orduak: astelehenetik ostiralera, 08:30etatik 13:30etara

Helbide elektronikoa: garraioabaimenak@gipuzkoa.eus

Harremanetarako telefonoa: 943 112991

EBAZPENA

Ebazteko gehienezko epea

Legezko epea: bost hilabete.

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

ARAUDIA

- Uztailaren 30eko 16/1987 Legea, Lurreko Garraioa Antolatzekoa, zeina aldatu egin baitzen uztailaren 4ko 9/2013 Legearen bidez. [Legea, lehorreko garraioak antolatzeari buruzkoa](#),
- Irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretua, Lurreko Garraioa Antolatzeko Legearen Erregelamendua onesten duena, zeina aldatua izan baitzen otsailaren 15eko 70/2019 Errege Dekretuaren bitartez. [LGAE](#)